

KatapultaTour Gipuzkoa

• DEIALDIAREN OINARRIAK •

2027 PROGRAMA

12.URTEA

Koordinatzaileak: KATAPULTA PLATAFORMA · BW buenavista Producciones

Bultzatzaileak: GIPUZKOA Kultura · KUTXA FUNDAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxa Fundazioaren **"Katapulta Tour Gipuzkoa"** musikako eta formatu txikiko arte eszenikoen proiektuei laguntzeko Programak Hamabigarren edizioan parte hartuko duten artistak hautatzeko deialdia ireki du. Edizio hori Gipuzkoan egingo da, 2027 urtean zehar. Deialdiak lehentasunezko 3 helburu ditu:

- Gipuzkoako talentua musikan eta arte eszenikoetan nabarmentzea eta bultzatzea —bereziki, gazteriari—.
- Gipuzkoako eszena dinamizatzen laguntzea, klubei eta antolatzaileei lagunduz.
- Prestakuntzaren eta saiakeraren alde egitea, profesionalizazio handiagoa lortzeko bide gisa.

Hartzaileak eta estiloa:

Deialdia musika eta arte eszenikoen esparruetan beren karrera modu profesionalean garatzeko interesa duten artista profesional berriei edo semi-profesionalei zuzenduta dago. Musika-proposamenak (Pop, Rock, Folk, Elektronika, Hip-Hop eta antzeko estiloak) eta formatu txikiko arte eszenikoen proposamenak (mikro-antzerkia, bakarrizketak, performancea eta magia) onartuko dira.

Proposamenek, gehienbat, artisten obra originalak edo haientzat berariaz sortutakoak izan behar dute.

Proposamenen hautaketa hainbat eremutako teknikari eta profesionalez osatutako epaimahai batek egingo du.

Hautatutako proiektuei honako hau eskainiko zaie:

- **Lau emanaldi** Gipuzkoako hainbat areto edo jaialditan, horietako bat Kutxa Fundazioko Kluba aretoa izanda.
- **500 euro** garbiko konpentsazio ekonomikoa emanaldi bakoitzeko.
- Artistaren edo proiektuaren **promozio-bideo** bat grabatzea.
- Musika Bulegoarekin lankidetzan garatuko den komunikazio eta promozio, eszenografia, ekoizpen eta jabetza intelektualeko **prestakuntza-programarako** sarbidea doan, gai bakoitzeko 45 minutuko mentoretza pertsonalizatuarekin.

Deialdian izena ematen duten gainerako proiektuek ere prestakuntza horretara sartzeko lehentasunezko eta doako bidea izango dute, mentoretzak izan ezik.

Kutxa Fundazioak Tabakaleran dituen espazioetan aurreikusitako obrak direla eta, edizio honetan ezingo da entsegu-espazioetarako sarbidea eskaini aurreko edizioetan bezala, nahiz eta aukera hori berriro hartzea aurreikusten den obrak amaitutakoan.

Hautaketa-irizpideak:
Aurkeztutako proposamenen artetik 10 proiektu hautatuko dira guztira, irizpide hauen arabera:

- Lehentasuna emango zaie Gipuzkoan erroldatutako artistei eta 30 urtetik beherakoei.
- Kalitateaz gain, parte hartzen duten artisten ibilbidea eta proiekzioa baloratuko dira.
- Proposamenen hizkuntza-eskaintzan eta parte-hartzaileen generoarekin oreka ezartzen saiatuko da.

Proposamenak **2026ko azaroaren 2tik 30era** bitartean aurkeztu beharko dira esteka honetan.

Hautatutako proposamenen izenak 2027ko otsailaren 10a baino lehen argitaratuko dira prentsaurrekoan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zein Kutxa Fundazioaren webguneetan.

Hautatutako proiektuek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Eskainitako 4 emanaldiak egitea.
- Programaren argitalpenak beren sare sozialetan partekatzea.
- Emanaldien ekoizpenerako eta komunikaziorako beharrezko informazio guztia garaiz eta eskatutako moduan ematea.
- Katapulta Tour Gipuzkoako langileen koordinazio-lana erraztea, emandako deialdiei eta jarraibideei erantzunez.
- Programa hobetzeko proposatzen diren inkestei eta ebaluazioei erantzatea, bai programak irauten duen bitartean, bai ondorengo 10 urteetan.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzetakoren bat ez betetzeak programatik kanpo uztea ekar dezake.

Emandako datu pertsonalak, irudia eta ahotsa barne, programaren sustatzaileei lagako zaizkie: Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Kutxa Fundazioari, bai eta Buenawista Prolleckziom´s Kultur Elkarteari ere, programaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa.

Parte-hartzaileek baimena ematen dute identifikazio-datuak, ahotsa, irudia eta fitxategi grafikoak doan erabiltzeko, informazio-, sustapen- eta kontserbaziotarako, webguneetan, sare sozialetan eta bestelako komunikabideetan argitaratzeko, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Buenawista Prolleckziom's Kultur Elkartearen artxibo historikoaren parte izateko ere. Parte-hartzaileen irudiak datu pertsonaltzat hartuko dira, eta izena emateko inprimakian emandako gainerako datu pertsonalen tratamendu bera izango dute.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.